Yazokun soil ořek aifatutea naikoa izango dala uste dogu geure asmoa edo guraria gogořtzeko, ba gizon oro edo gusti-gustiak diñoe gaur abo batez, edari-zaletasunari guda gogoña egitea beařezko-beařezkoa dala. Au mundu gustiaren edo gizon oroen gogoan dagola eřaz erakutsi leike, ba ořetarako, gizařte gauzak edo arazoak azteřtzen dabezan idazleak, edo gizařte gauzetan aituak diran gizonak idatziriko idazti bat zabaltzea baño eztaukoze ta bere ofietan edozenbat gai topauko diřuzue edari-zaletasunaren kontra ageřtu gura dozuben gustia sendotzeko. Emen ageřtuko doguzan yazokunak geuk asmaurikoak eztirala yakin dagizuen egiten dogu argitasun

au, ba emen agertzen doguzan zertzelada gusti-gustiak Aldundiaren Opizi-
ñetara geuk eskatu, ta bertatik bidaldu dauskuezanak dira.

Arazo aztun oneri beař daun arduraz begiratu ta berari dagokion az-
kařtasunaz ta ziařtasunez atontzeko alegiřnak egiřea da geure gurari bizi-
bizia.

* * *

Gizonari etofi leikiozan gauzarik negařgařienak eta mingařienak ugoř-
ki edo alkolaren bidez yatořkozala diřoe gaur gizon aifu gusti-gustiak, eta
uste au gizon gustien ařtean zabal-zabal dabil.

Ta egia da; gizonaren argiak eta indařak eltzen diran leku gustietara
eldu da alkolaren edo ugořkiaren zigof madarikatu au. Bařa onetan beař-
giřnak dira zigof-taunenak; beařgiřnetan ekusten dira geyen alkolaren zigof
onek. Beařgiřnen ařtean noizik bein taleřetan edo beař lekuetan yazoten
diran ezbiařak, eriotzak eta onetarikoak, eztira ezer alkolak ekařten diřuan
kalte ta eriotza andien aldean. Edariak gizonaren gorputz bafuan egiten
diřuan triskantzak, ikeragařiak dira, ta euren bidez Yaungoikoa'k egiřiriko
gauzarik txukun eta edeřena, gizon-gorputza, dana auldu, makaldu ta ez-
ereztu egiten da. Gizagorputza alkolaren bidez, edariaren bidez, ufatuta,
bifinduta, gořpuz-ondakin-pila andia eginda geratzen da, ezetarako gauza
eztala, ba gizonaren burua, edariak eraginda, sentzun barik eta artezkun-
tza barik, indař barik aurfkitzen da beti.

They deritxon yakiřunak Parantze'ko erki baten yazoriko ezpeařak
azteřtu diřu, eta asteko egunen ařtean eurok banandurik, zořtzi urte bař-
uan Seguro-Bazkun bateko batzařkiden ařtean yazorikoak lauki baten er-
akusten dauskuz. Bertotik agiri da beařgiřnak geyen edaten daben egunetan
euren ařtean ezpeařak geyago dirala. Ara:

Igandez (domekaz)	29 ezpeař yazo ziran
Astelenez (ilenez).....	1.997 » » »
Astařtez (martitzenez).....	1.679 » » »
Egubaztenez	1.432 » » »
Eguenez	1.531 » » »
Barikuz.....	1.333 » » »
Larunbatez (sapatuz).....	1.531 » » »

Ta yazokun onek alde gustietan olakoxeak izan beař dabe, ba onetar-
iko Bazkun edo Soziedade askok euren bazkideak aldra biřan banantzen
diřue: edaten eztabenak alde batera, ta edaten dabenak bestera ipinten
diřuela. Onetariko Bazkun batek, *United Kingdom Temperance and Gene-
ral Provident Institución* deritxonak, lenengo aldrakoen ařtetik onako den-
pora bafuan, 5.177 ilgo zirala gitxi gora-bera atarata edo kalkulauta eukola
diřo, ta 3.633 bakafiř il zirala; ta bigařen aldrakoentzat aldi bardifiřan edo
denpora bardifiřan, 7663 botata eukozala, ta 7.459 eriotza izan ei ziran
euren ařtean.

* * *

Gizonak euren ařtean egiten diřuen gaiztakeriak, lagun urkoa il edo
zauriřu, yo ta onakoak be, edari-zaleen ařtean geyago izaten dira, edaten
eztabenen ařtean bařo. Ta au egia dala egunero ta alde gustietan edo efi

gustietan ikusten dogu. Oregaitik edo au ondo ekusten ebala, legegileak, mozkortuta dagon gizonak egiñiriko gaiztakeria ostantzeko beste gizon batek egiñirikoa baño txaftasun edo gaiztakeri indaf mala gitxiagokoa zala erakutsi eban. Mozkoftuta dagon beargiña, berak gura eztaula, edo zer egiten daun eztakiala sartzen da bere gorputza ufatuko daun makiña ikaragariaren bafuan, eta era aretan dagon gizonak, ofetaraxe egiten dau gaiztakeria, berak zer egiten daun eztakiala. Au gogoan eukirik idatzi eban lege-idaztitan legegileak, of gorago aifatu doguna. Edaria edo edariak daukon alkola da gizonak geyenetan beste gizon bateri egiten dautson gaiztakeriaren eragilea edo efuduna. Au onduen dakienak espetxe edo kartzeletako zaindariak dira. Alkoldun edaririk ezpa-lego elitxakez yazoko ainbeste erailtza, edo gizonak eleukiez egingo ainbeste gaiztakeri, ba alkoholaren indafak burura igoten daunean, gizonak zer egiten daun eztakiala yafren da, ta berak eroaten dau gizonaren eskua gaiztakeria egitera.

Onetan be zenbakiak edo numeroak argi asko emoten dauskue. *Koblinki* doistař osagile yakintsuak 380 espexalduk egiñiriko gaiztakeriak ondo azteftu, ta lauki au egin dau:

68'k Astelenez (iñenez)	egin eben gaiztakeria
28'k Astaftez (martitzenez)	» » »
20'k Egubaztenez	» » »
20'k Egubenez	» » »
17'k Barikuz	» » »
62'k Sapatuz	» » »
165'k Domekaz	» » »

Zenbaki onek eta len aifaturiko yazokunak ondo ařgi erakusten dauskue egia, ta egi au bide dala, geyen edaten dan egunetan gaiztakeri geyago egiten dirala guzura esatezo bilduř barik esan daikegu. Edaten dan alkoholak bere bafuan daroa eriotzearen efoa, ta bere bidez egin daroa gizonak espetxeke ate aztunak zabaltzen dautsozan gaiztakeri gorotografia.

* * *

Edariak dakaskuzan kalteak eta burukomiñak banan-banan eta sakon-sakon azteftuten eta ařgi ipinten asiko ba'giña, Aldundi Goitia'ri aufkeztuten dautsogun egingai au askotxo luzatuko litxake, ta beraz, geure asmoaren bideetatik efaz-efaz uftengo giñakez, ta au gogotan ařtuta, eztogu emen aifatu gura edari-zaletasunak berekin dakafezan berezko eriotza, sendietako txirotasun, bulafeko gaizo, zorotasun ta ostantzeko beste kalte asko ta asko. Onek kalte gustiok M. Urbina'tař Pidel yaunak ederto azteftu ta erakutsi ziřuan (Los estragos del alcohol.—El alcoholismo en Guipúzcoa) deritxon bere idaztitan. Onetariko beste zertzelada asko erakutsi al izango geunkez, baña len esan dogun legez, lafegi ez luzatzeafen, eztoguz aifatu gura.

Baña Bizkai'rako ondo datoan argibide batzuk eztoguz ofaitiño izilik itxi gura, ba eurok begien aũean ipiñiaz geure gogoa lotsatuko da, ta gaitz onek beař daun efemedioa ezaftzen aleginduko gara uřean.

Bizkai'ko biztanle edo Bizkaya'n bizi garan gustiok, Bermeo'ko zorotxea zoroz bete-beterik dagola ondotxo dakigu; ori ezta gaur geuretzat

iziliko. Oñez ganera, Bermeo'ko etxe ofetan Bizkai'ko zoro gustiak saftu ezin dirala ta, Aldundi Ofek (Santa Ageda, Valladolid eta Iruña'ko) zoroetxetara eroan beaf izaten dituala be ba-dakigu bizkaitaf gustiok. Astean-astean zorutzen dira Bizkaya'n lagun bat edo bi gitxienez, eta aindo edo kantidade onetan, etxeetan izilean, inok yakin barik gordeta dagozan zoroak saftu barik, euren pamilyak dirudunak diralako edo, zoroetxera bidaldu gura eztiuenak. Aldundiak eroanda edo beronen bidez 63 zoro saftu ziran zoroetxeetan 1.919,g urtean; 1920'g 71, ta euren artean erdiak baño geyago edari-zaleak zirala uste izatea ezta bide bakoa izango.

Edari-zaletasuna edo edariak daukon alkola bide dala zabaldu da azkeneko urte onetan ainbeste Bizkaya'n, bulaferko gatxa. Gaitz onek daroa lufpera geure gastedi edef-edeña, ta gurasoekandik nastatzen dira umetxoak gaitz ikaragafi onekin, eta umetxu onek gaitz ofen efpietatik gaizkatzeko ainbeste ta ainbeste *miloi peseta* gastau beaf ditu Aldundi ofek Gorliz'ko osatetxean. Ta ezta au kalte bakara, guraso asko ta asko, edari zaletasuna dala ta, txirotu edo pobretu egifen dira, ta euren seme-alabak asi eziñik, an dakaferz umiok efuki etxetara saftzen. Onegaitik ikusten dira efukie etxeak bete-beterik, eta gaur difugunak gitxi dirala, beste andiago batzuk egiteko asmotan ibili beaf izaten dogu.

Diñogun gusti onek, Aldundiak efukietxeak geitu ta txirotasunari egingo dautsozan laguntasun gustiak alpefikakoak izango dirala esan gura dau, txirotasun onen ifufia itxi, ta bere zegaitiei guda gogofa, eten bako gudea egifen ez-pa'yako. Edari-zaletasunari aurka egiteko gastauko dan edo gastauko dogun dirua, efukietxe, zoroetxe ta ofetariko etxeak ez egitearekin auferatuko dogu.

Beraz Aldundi ofek efukietxe, zoroetxe, sendatetxe ta ofetarikoetan dirua gastau beafean, ofentzat beaf dana itxi barik, eurok egitea eragiten daben zegaitiei auf emoteko gastau beaf leuke.

Edariaren kaltez edo kontra esan dogun gusti au geyegitzat eukiko dabe beaf bada bat edo batzuk, ta Bizkai'rako edo Bizkaya'ri begiratuz esan doguna ereti bakotzat, ba askoren begiak Bizkaya'ri dautsoen maita keriak lausotuta, eztabe askotan ikusten geure efari konbeni yakona zer dan, ba maitakeri ofek eztautsoez izten Bizkaya'ren orbanak ikusten.

Eusko endea yan-edanean neufikoa ta osasunez sendo, gogofa zan antziña; baña gaur enda ori yausi egin da. Kanpotik etofi yakun beste enda batek ufatu difu geure endearen aztefenak, eta edariak geure efiko azkenengo bastaferano daroan edenak edo benenoak eraginda eusko-enda indaftsu sendoa bere galbidearen asieran dabil, ta tamala danafen, tristea danafen, bide ofetatik lastef gustiz galduko dala autoftu beafean aufkitzen gara.

Eztaigun itz edefekin geure aboa bete. Ekandu oneko endea dala geure endea esatea len ondo egoan, eta egia zan; baña ez gaur. Trueba olefkarri ta ipuinlari argia gaur bizi izango ba'litz, eleuke berak ufean eusko-ekandu onik, edo geure ekandu garbirik aifatuko bere olefki-ipuñetan, len aifatu zifuan legez. Bere efiaf gaur daukozan ekandu txaf eta oifura gaiztoak min emongo leuskioe, ta euren kaltez edo kontra bizi-bizi yagiko litzake ufean gaur.

Bizkai efkian edaten dan ugoftki edo alkola zenbat dan ondo yakin gurarik, geure efian saltzen diran edari gogof gustien aindoak edo kantidadeak zietz-zietz, al izan dogun zietzen batu difugu, eta eurekandik alkohol utsari dagokiona atarata, zertzelada oneik atara difugu:

1919'gf. urtean agirian edanikoa

	Litroak	Indaia	Alkol utsa
Ardaoa	31.677.203	12'koa	3.801.264
Ardao gozoa	208.508	17 »	35.446
Bizdun ardaoa	32.393	17 »	5.506
Eranzioa ta jereza	203.681	17 »	34.625
Alkola	558.291	94 »	524.793
Kanpoko edaria	73.463	45 »	33.058
Bizkai'ko edaria	123.200	45 »	55.440
Kanpoko garaga'daoa	34.272	6 »	1.456
Bizkai'ko garaga'daoa	1.529.021	6 »	91.741
Saga'daoa	75.370	4 »	3.014
Gustiz			4.586.343

Orixe da Bizkaya'n agirian edaniriko alkolaren aindo edo kantidade zietza; baña eskutuan edanirikorik eztakigun lez, onetara edan dana, geure efkira udea igaroten eta olan etofi diran kanpotafak edanirikoa beragaz kifaturteko bota daigun eta beraz aiatu barik itxi. Alan ta gusti bere, au ateratzen dogu:

Bizkaya'n edaniriko alkol utsa..... 4.586.343 litro
 Biztanleak 393.021

beraz biztanle bakotxari urte betean 11,523 litro dagokioz.

Aindo edo kantidade au olan bera bakafean ipinten ba'dogu eztausku ezetariko irakaspenik emoten. ¿Asko ete da? ¿Gitxi ete da? Eztakigu. Onetarako edo, au yakiteko, beste efi batzuetan edaten dana yakin bear dogu, ta au yakin ezkeru, beingoan ikusiko dogu geure efiian edaten dana asko ala gitxi dan. Beste efi batzuetan edaten dana begien auean ipini daigun bada.

Parante'ko gizon aiñuak diñoskuen legez, geyen edaten daben efiak onexek dira:

Prante'n 14,19 litro biztanle bakotzetik
 Belgika'n 10,50 » » »
 Doitxe'n (Alemania'n) 10,50 » » »
 Dinamarka'n 10,20 » » »

¡Tira ba! ¿Au yakin ezkeru, efi onen artean zein leku dagokio geure biotzeko Bizkai gaxuari, geyen edaten dabenak lenengo tokian ezafita? ¡¡Bigafen lekua!!

Tamala da; baña parantzetafak edo prantzesak bakaf-bakafik irabazten dauskue edaten bizkaiñarei. ¡Au bai dala benetan lotsagafia! ¡Benenetan gero...!

Ondo agiri dago ba Bizkaya'n asko edaten dogula, ta beraz, edadiaren kalteak edo edariak berarekin dakafezan kalteak geure artean zabal dabilzazala. Geuk emen ageftu edo esan leikiguzan efazoe gustiak utsak izango dira zenbaki edo numeroak esaten dauskuenaren aldean.

Alkolaren zabaltze oneri edo edari-zaletasun kaltegafi oneri esia ipini bial yako defigof. Zelan edo alan gatzari efemedioa egin bear yako. ¿Zein izango da efemedio au baña?

Goi-Amerika'n (Estados Unidos'en) orain urte batzuk dirala lege estu-

estu bat ipiñi eben alkolaren kontra. Lege onek galerezoten dau efki aretan ezetariko alkolik saltzea, ta lege ori austen dabeneztat zigof andiak dagoz. Goi-Amerika'n ba ezin dau gaur iñok agirian beintzat alkoldun edaririk saldu ta saltzen arapatzen dabena gogof-gogof zigof tazen dabe. Espafia-latefian osteria edari-zaletasunari aufka egiteko egiten diran alegiñak gustiz mergatzak dira, gustiz aulak. Geyenetan edariaren kontrako idazkun itxusi batzuk ikusi izan ditugu, efi batzuetan, gentiari edariaren kalteak zelakoak diran iragaiteko; beste guda modurik etxako egiten Espafia-latefian edari-zaletasunari.

Geure ustez edari-zaletasunari auf egiteko bide bi oneik txafak dira: batari, Goi-Amerika'koari, lafegia deritxagu geure eñan ipinteko, ta besteari osteria, Espafia'koari, aulegia, bigunegia.

Lafegikeriz, geikeriz, eztogu ezer bere loftuko; baña bigunkeriz bere ez; ta onegaitik aifaturiko bide biak eztoguzala aftu beaf uste dogu.

Geure eretxiz, edari-zaletasunari esia ipinleko aftu beaf dogun bidea, geure eñan laster-laster zirt edo zart egitekoa izan beaf dau, ta onetarako eñiaren izakerari begiratu beaf yako, eñiak bultzakada andirik egin barik beteko dauzan legeak ezafirik.

Ba-dakigu onetarako eragozpen edo traba andiak aufkituko dituala Aldundi Goiti ofek, ba berak eztauko legerik egiteko eskubiderik, gobernuarena dalako eskubide ori.

Efremedioak ipinten asi orduko, gobernuari edo eñiei eurei bakañ-bakafik yagokezan eskubidietan igafi barik saftuko gara ziuf-ziuf, ta au, daki-zuen legez, geuretzako eragozpen edo traba andia da; beraz geuk onetan erabiliko dogun bidea ezta gogofkeriarena izango biguntasunarena baño.

Era bikoak izan beaf dabe geure ustez edari-zaletasunaren kontra egiteko erabili beafko doguzan bideak: batzuk, eñiaren gogoan irakaskizunaren bidez edari-zalakeriari gofotoa aftu erazotekoak, eta bigafena alkoldun edariaren salketeari eragozpenak edo trabak lege bidez ipinlekoak. Lenengo bidiekin, alkolaren kalteak zeintzuk eta zelakoak diran irakasti bidez emoteakin, edariarekanako gofotoa softu erazoko dogu, ta edari-zale askok bide onetatik berez itxiko dabe zalekeri kaltegafi ori; ta bigafen bideekin edari-zaltzaleak diruz ondo-ondo estututearekin edari-saltzea asko ufifuko dogu ufean.

Geure ustez biderik garantzidunena bigafena da, ta berau leku onetik eroateko, orain arte edari salketeagaitik ordaintzen dan kontribuziño edo zerga araua aldatzea izango litxake onen-onena; baña ez diru geyago atarateko asmoz, edariaren salketa dendak ufitzeko asmoz baño.

Onetarako, emendik auñera, Gipuzkoa-efkian egiten daben antzera, zerga-agirien bidez kontribuziñoak kobratzea izango da biderik egokiena. Zerga-agiri onek gero yafiko ditugun arauen bidez kobrauko dira.

Ganera trabenak osasunerako euki leikien alde txafari buruz; onetariko denda bafiak zabaltzeari eragozpenak yafi leikioz, ta lengo zaf asko edo lendik zabalduta dagozan asko osasunerako onak ez-padira, itxi erazo leikez ta ofetara trabenak ufifu. Eragozpen oneik, olako lekuetan gazteei zartzen debekatzeagaz ondiño geyago geitu leikez.

Beste alde batetik, len aifatu dogun lez, itxeikizun (berbaldi), idazti (liburu), ta onetariko gauzen bidez edari-zalekeriaren kontra guda gogofa asi beaf da, gentearen biotzean alkoldun edariekanako gofoto bizia softu eragiteko.

Onegaitik, eta zeuk ondo-ondo azteftuta gero geyen konbeni dan moduan erabagi dagizun.

EGINGAI-ASMO AU AURKESTUTEN DAUTZUGU

Alkola edateko oiturea gitxiu ta beronek beragaz dakafezan kalte ta burukomifiak al dan geyen aldentzeko onek erabagifen dira:

1.^a Auferantzean, ardao garagañdao ta ostantzeko alkoldun edariak saltzearen ordaintzen dan zerga edo kontribuziñoa, zerga-agiri edo patente bidez ordaindu bea izango da defigoñ.

Onetarako, lengo arautegiaren boskañen saneufi-atlan sañtuko dira emen ipifiko diran arauak edo efeglak, eta atal ofen lenengo zatiaren bañuan laugañen klase bat egingo dabe, ta klase edo mota ori lengoeri batuko yake.

Beraz arau onen bañuan dagozan erabakiak lengo araudiaren lenengo saneufitegitik kendu egingo dira.

2.^a Orain erabilfen dan Araudiaren boskañen saneufitegiaren auñean diñona aldatuta, emendik auñera, zerga-agiriak edo patenteak urtean-urtean artzekoak edo ataratzekoak bakafik eztira izango, sei ilabetetik sei ilabetarakoak be izango dira, ta aldi ori patentea artzen dan egunetik auñera kontauko da ta ez sei ilabetearoa, legez, amaitzen danean.

3.^a Trabena, kafe, garagañdotegi ta alkoldun edaria gitxika saltzen daben etxeen yaubeak, euren dendak zabaltzen diñuenean añtu beaño dabe zerga-agiri edo patentea, ta urteoro edo urtean-urtean bañiztau bea izango dabe agiri ori, ostantzean efudun egingo dira ta gero añtatuko dan zigof edo kastigoa ezafiko yake. Gitxika saltze au ezta izango gero denda bañuan edaten dana bakafik, eroslearen etxera botiletan edo gañfoi txikietan saltzen daben dendak be arau onen bañua sañtuko dira. Gañera euren bazkidieri bakafik saltzeko izanañen be, edariak saltzen diñuen Batzoki, Kasino ta onetarikoak be araudi onen bañuan yausiko dira, ta urtean-urtean atara bea izango dabe patentea.

Yatetxe, hotel ta onetarikoak orain añte lez ordainduko dabe; baña edariak yañofduetan izan ezik, kopaka, basoka edo onetara gitxika saltzen diñuenean, bestiak legez ordaindu bea izango dabe defigoñ.

4.^a Zerga-agiri edo patente onek saneufitegi onen bidez ordainduko dira; ara:

Lenengo aldra

Eroslearen etxera boteletan edo ostantzeko ontzietan alkoldun edariak saltzen diñuen trabena edo ostantzeko denda klaseak, bertan dendan edateko saltzen eztabenetarikoak:

Mila lagunetik beerako efietan	10	peseta.
Mila lagunetik gorako efietan; baña 2.500 baño txikiagoetan ..	15	>
Bimiña bosteun etik gora; baña bost mila elduko eztiranetan.	20	>
Bost milatik gora; baña amañ mila elduko eztiranetan	25	>
Amañ milatik gorako efietan onen añtean Bilbo sañtzen dala ...	30	>

Lauki edo kuadro onetan sañtzen diñugun zergak orain ordaintzen diran gañera izango dira; beraz orain añte legez ordaindu edo pagauko dabe lauki onen bañuan sañtzen diran denda moduak eta ofez ganera, laukian yañten dana.

Bigarren aldra

Dendan bertan, dendatik urten barik edateko ardao, garagaño ta ostantzeko alkoldun edariak gitxika saltzen dituen denda klaseak, naiz trabenak, naiz kafe, naiz yatetxe, naiz otantzeko dendak dirala:

Mila lagunetik beerako eñietan	50 peseta.
Mila lagunetik 2.500 lagun bitarteko eñietan	60 »
Bimila bosteun'etik 5.000 bitarteko eñietan	75 »
Bost mila'tik 10.000 bitarteko eñietan	90 »
Amañ mila lagunetik gorako eñietan	110 »
Bilbo'n	150 »

Irugarren aldra

Estaziñoyetako kantiñak:

Mila lagunetik beerako eñietan	25 peseta.
Mila lagunetik bost mila bitarteko eñietan	40 »
Bost mila lagunetik gorako eñietan eta bultzitako edo trenak bide bat baño geyago afitzen dituen eñietan edo bultzitako gelditzen danetan	50 »

5.^a Eñetik kilometro bat baño geyago aldentuta dagozan auzotegietako edari-dendak; or gorako afitaturiko laukietako preziorik txikiena ordainduko dabe baño kilometro bat baño geyagoko bide neñi ori kaletik auzotegiko lenengo etxera biderik laburñetik afituta izango da gero.

6.^a Edaria gitxika ta denda bañuan beñtan edateko saltzen daben edari-etxeak osasunari yagokozan gauza gustiak ondo beteta euki beañ izango dabe; eztira izango zikiñiak, ilunak, txikiñiak, estuegiak eta onetara garbiak, argiak, andiak ta zabalak baño, ta au eñian olako gauzetarako izendauta dagon gizon afituak izenpetu edo firmauriko agiri edo dokumentu baten bidez ageñtu beañ izango dabe denda yaubeak euren dendea zabaldu afitetik, ostantzean, dendeak, eskatzen diran garbitasun oñek beañ dan moduan euki ezik, etxake dendea zabalteko baimen edo permisurik emongo. Era onetantxe, urtean urtean, Aprilaren lenengo eguna baño lenago, ageñtu beañ izango dabe denda yaubeak euren dendea osasunari yagokozan gauzak ondo beteta daukezala. Au egin barik itxiko daben trabena yaubeak efudun izango dira, ta euren efu ori geroago afitatuko doguzan zigof-arauen arteko irugarren zenbakiak diñon zigor moduz zigoftauco dira, ta antxe ezafitzen dan multa ezafiko yake.

7.^a Eñiko udalak edo Ayuntamientuak aginduta daukozan orduen bañuan bakañik egon leikez trabenak eta ostantzeko edari dendak zabaldua, ta ordu ofetatik kanpora edo ordu oñek baño beluago zabaldua aurkituko dan edari dendearen yaubea, efuduna izango da ta, zigofa ezafiko yako berari be.

Iñoiñ iñungo Udal edo Ayuntamenturen bat berak lendik aginduta daukozan, trabenak zabaldua eukiñeko ordu oñek luzetzeko asmoz Aldundi ofetara ori egiteko eske etofiko ba'litiz, Aldundiak beti atzeratuko dau eskari ori, ta eztau aintzakotzat afituko ezetza bidaldurik beti.

Aldundi onek berotasun andiz, beronek edariaren kontra asi daun guda gogof eten bako onetan lagun dakioela eskatzen dautse Bizkaiko Udal gusti-gustiei, ta onetarako euren ordenantza edo eñi zuzentza araudietan

trabenak zabaldua eukiteko orduak uritu edo gitxitu dagiezala luzatu beaŕean eta ordenantzarik eginda ezpa'leuke al-bait lastefen egin dagiyela eskatzen yake gañera.

8.^a Lauki oneetan aitatatu diran zerga moduak eŕietan gabeko amaŕak aŕfetik eta Bilbo'n amaikak aŕfetik itxiko diran trabena edo edari-dendai kobrauko yake.

Eŕietan amaŕetatik amaiketara biŕaŕtean eta Bilbo'n amaikak amabiak biŕaŕtean itxiko diranak oŕez ganera, zerga ori ordainduz ganera, euneko beŕogetamaŕeko eŕekargoa ordaindu beaŕ izango dabe. Eŕietan amikak baño beluago ta Bilbo'n amabiak baño geroago itxiko dabenentzat eŕekargo ori doblia izango da.

Zigor-arauak

1.^a Araudiaren 114'gaŕen atalak diñoenari buruz, emen aitatuko diŕgun arauak ausiko diŕtuenak patentearen saneufiz ganera beste ainbeste multa ordainduteko eŕudun egingo dira, ta beraz patentea biŕitan ordaindu beaŕko dabe.

a) Agiri asmo onen laugaŕen arauan agintzen dan eraz patentea aŕtu barik euren dendak zabalduko diŕtuenak edo seigaŕen arauan agindurikoa bete barik zabalduko diŕtuenak.

g) Euren denda klaseari yagokon patentea baño prezio txikiagokoa aŕtuta euren dendak zabalduko diŕtuenak.

k) Irugaŕen atalaren bigaŕen zatian aitatuten diran yatetxe, hotel ta onetarikoak yatoŕdutik ataz edariak gitxika zaltzen diŕtuenean oŕfatarako beaŕ daben patenterik atara ta ordaintzen ezpa-dabe.

2.^a Aŕfeko atalan aitatatu diran beaŕkunak biŕitan ausiko diŕtueneri patentea kenduko yake, ta beraz dendea itxi beaŕean aŕfkiŕfuko dira.

3.^a Eŕiko Udalaren ordenantzak edo zuzentza arautegiak aginduta daukozan orduetatik gora euren edari dendak zabalik eukiko diŕtuen trabena yaubeak patentearen gañera aren erdia multatatzat ordaindu beaŕ izango dabe araua lengoz austen dabenean. Arau ori baŕiro ausiko ba'lebe oŕtera, patentea biŕitan ordaindu beaŕ izango dabe, ta ganera patente ori kendu egingo yake.

Foralak eukiko dabe arau oneik ausiko diŕtuen denda yaubeak denunziateko aŕdurea euri eŕfiko ordenantzetan aitatzen diran zigofak ezafi alizateko. Denuntzia oŕek eŕfiko agintariei zuzenduko yakez, ta emen aitatzen diran zigofak ezafi al-izateko, Komisiño Probintzialari. Denuntzia onek arduraz ta zietz-zietz egin dagien eskatzen yake.

Denuntzia saŕtuko dauna, naiz porala, naiz ostantzekoa dala, multearen iru zatirik bi yasoko diŕtu ta irugaŕen zatia eŕpedientea erabili dan idazkolalako izango da.

4.^a Edariaren kontra guda gogoŕa, eten bako gudea erabiliko da Bizkai gustian, onetarako Junta de Cultura Vasca deritxon Bazkunak, edariaren kalteak argitara atarako diŕtuen idazki, idazti ta onetarikoak egiŕteko aŕdurea aŕturik. Idazkai oŕeik irafi ta dubarik zabalduko dira Bizkai'ko eŕf gustietatik euren egiŕleri, al izanik, sari edo premioak emonik.

Gañera Bizkai'ko eŕf gustietan alkolaren edo edariaren kontrak konperentzi edo itzeikizunak egingo dira Junta de Cultura Vasca oŕek onduen deritxon eraz.

Era onetan eta gorago aitatzen dogun Batzorde edo Junta oŕek anto-

latuta, *Edariaren aurkako Eguna* deritxona egingo da. Berau *La Tarde* izpafingiararen idazle baten asmoa da. Egun ofetan alkoldun edariak saltzen diran denda gustiak itxia egon beaf izango dabe ta efietakoko kalietan mitionak edo batzarak egingo dira. Egun ori urtean bein izango da; baña urte gustietan.

5.^a Euskalefiko margolari bateri aginduko yako edariaren kalteak margoz lauki andi baten imini dagiazala, ta lauki ofeik efi gustietatik zabaldu ta batez be Udal ta eskoletan leku agirian yafiko dira.

6.^a Azkenez, Egiñen Asmo au irari, ta Bizkai gustitik edo Bizkai'ko Udal gustietara bidalduko da, ta Udal ofei euren Ordenantzetan alkolaren kontrako arauak ezafi dagiezala eskatuko yake Egiñen Asmo onetan erabagitzen dana efiari egin erazoteko gustien laguntasuna beaf da ta. Batez be amasei urte bete barik dituen gastei trabenetan saftzea debekatu dagiela eskatu beaf yake Bizkai'ko Udal edo Ayuntamiento gusti-gustiei.

Egiñen Asmo onen egileak, Aldundi-Goiti ofek euren asmo zuzena ontzat aftu, ta bertan eskatzen dan gustia gogo onez ta efiari konbeni yakon legez bide onera eroango dabela uste dabe.

Bilbo'n 1921'gko. Otsala'ko 28'gna.—*Rodriguez Bilatrika'tar J.*—*Arien'dar Julen.*—*Lasota'tar Eramun.*—*Araluze'tar Andoni.*—*Zabala'tar Perderika.*

Aureko Egiñen Asmoaren bayezko Erabaki-Agerkuna

ERABAKI AGERKUNA.—Aldundi Goitiak, gaurko Batzafean, aufeko Egiñen Asmoa irafi, Bizkai'ko Udal eta Batzokietara bidaldu, ta Junta de Cultura Vasca deritxon Batzofdeari berari yagokozan arazotzaz bere txostena egin, ta efi-ogasunaren buruz egiñen asmo onek daukozan erabaki gayok ukutu barik, bere txosten ori bidaldu dagian eroan edo aufkeztu dagiola erabaki daula zin egiteko izenpetzen dot nik, Aldundi onen Idazkariak, Erabaki-agerkun au.

Bilbo'n 1923'gko. Urtafi'la'ko 2'gna.

Izenpea: *Estetxa.*

Ogasun-Batzordearen Txostena

Bizkai'ko Aldundi Goitiari

Jauna:

Otsala'ren 28'g. egunean aufkeztu eutzuen Aldun jaun batzuek alkola edateko zaletasunari guda egiteko asmoz Egiñen-asmo edo Egingai txalogañi bat.

Edari zaletasunak berarekin dakafezan kalte ta burukomin gustiak argi ta garbi ikusi leikez Egiñen-asmo edeñ ofetan, eta ori mundu gustiaren afean ageftuteko, arazo aztun onek dauzan alde gustiak sietz-sietz adiral-tzen ditue bertan Aldun jaun ofek. Onetarako ona izango litxake «Junta de Cultura Vasca» deritxon Batzordeak berari yagokozan arazoak egite bidean ipiñi dagiazan.

Edariaren kontra gudea egiteko gastauko dogun diru gustia gero ya-sotekoa da edo gero yasoko dogu bafiro. Biar bada eztogu diru ori beingo-beingoan bafiro yasoko; baña goiz edo berandu ziuñ-ziuñ ikusiko dogu, geuk uste dogun baño lenago ufean, Gezotegi, Eñuki-etxe, Zoro-etxe ta ofetariko etxeetarako urtean-emon beañ izaten doguna uritu egiten dala.

Ogasun-Batzordeak bere aldetik, lasteñ argitaratu beañ dau Bizkai'ko efi gustietako biztanle ta tabernak lista baten, eta lista ofetan ikusiko da argi ta garbi zelako gafantzia daun geure artean edari-zaletasunaren edo zalekeriaren, (izen au obeto yagoko ta) gatzak.

Efi-ogasunari yagokon aldeari buruz, ta trabena bafiak zabaltzeari al diran trabarik andienak iminteko asmoz, erabagigai asmo onek aufkeztu-ten dautsoguz geure aldetik Aldundi Goiti oferi.

Arauk

1.^a Auferantzean, ardao, sagafdao, garagafdao ta ostantzeko alkoldun edariak saltzeafen edo saldu al izateko ordaintzen dan zerga edo kontribu-zifioya, zerga-agiri edo patente bidez ordaindu beañ izango da.

Onetarako, orain zutunik dagon Zerga-Arauditegiaren boskañen sa-neuri-atalan sañtuko dira arau onek. Zerga-Araudi ofen 1.^o saneufitegitik

atal onek kenduko dira: 2'grfn klasearen 2.^a; 3'grfn klasearen 2.^a; 5'kfen klasearen 8, 38 ta 45.^a; 6'grfn klasearen 1 eta 16.^a; 6'grfn klasearen 3 ta 9.^a; boskafen saneufitegiatik 1.^a ataleko 1.^o klasearen 13.^a ta 2'grfn klaseko 14.^a

2.^a Orain erabilien dan Araudiaren boskafen saneufitegiaren aurrean edo buruan diñona aldatuta, emendik auffera, zerga-agiriak edo patenteak urtean-urtean artzekoak edo ataratzekoak bakañik izan beaŕean, sei-ilabetetik sei-ilabetera ataratzekoak be izango dira, ta aldi ori edo denpora ori, patentea artzen dan egunetik auffera kontatzen asiko da, ta ez sei ilabetaroa legez edo lege-pean asten danean.

3.^a Trabena, kape, garagaŕdotegi ta alkoldun edaria gitxika ta saltzedandan bertan edateko saltzen daben etxeen edo dendaen yaubeak, euren denda ofek zabaltzen diñuean bertan, artu beaŕ izango dabe ofetarako beaŕ izango daben zerga-agiri edo patentea, ta urtoro edo urtean-urtean bafiztau beaŕ izango dabe zerga-agiri ori, ba ostantzean erudun egingo dira. Gañera, ta euren bazkidieri bakañik saltzeko izanaŕen bere, edariak saltzen diñuen Batzoki, Kasiño ta onetarikoak be, arau onen bafuan saŕtzen dira, ta urtean-urtean atara beaŕ izango dabe patentea.

Yatexe, hotel, apopilo-etxe ta onetarikoak orain arte legez ordainduko dabe; baña yatofdutik kanpora edaririk gitxika, basoka ta ofetara salduko ba'litue, besteak legez ordaindu beaŕ izango dabe patentea. Yanariak saltzen diran dendak be edaririk gitxika salduko ba'lebe, patentea ordaindu beaŕ izango leukie.

4.^a Zerga edo inpuesto au Araudi onen bidez kobrauko da:

A r a u d i a

Trabena, kape, garagaŕdotegi ta denda bafuan edatekotan alkoldun edaria gitxika saltzeko baimen eda permisoa daukien denda klase gustiak.

Mila lagunetik beerako efietan	60 peseta.
Mila lagunetik gorako ta bimila bosteunetik beerako efietan ...	70 »
Bimila bosteunetik gorako ta 5.000'tik beerako efietan.....	85 »
Bost milatik gorako ta amar milatik beerako efietan	100 »
Amarmila lagunetik gorako efietan	150 »
Bilbo'n	250 »

Onetariko dendetan yanariak saltzen diranean patenteak euneko ogeta-bosteko efekaŕgoa eukiko dau. Kapeak ba'lira yanaria saltzen diran dendal ofeik euneko ogetamaŕeko efekaŕgoa eukiko leukie.

E s t a z i ñ o y e t a k o K a n t i ñ a k

Mila lagunetik beerako efietan	25 peseta.
Mila lagunetik gora ta 5.000'tik beerako efietan.....	40 »
Bost mila lagunetik gorako efietan eta bultzi edo trenak bide bat baño geyago diñuen efietan edo ta bultzia gelditzen danetan.....	65 »
Bilbo'n	125 »

Antzoki edo teatroetako edari lekuak eta aize zabalean yafiko diranak azkenengo araudi onen bidez ordainduko dabe.

5.^a Beaf dan baimenaren gañera, trabena bafi bat zabaldu gura izango danean, lekual edo tokiagaitik etxe yaubeari urtean-urtean ordaindua beaf izango yakon beste ainbesteko inpuettoa aŕtuko dau efiak. Bilbo'n inpuet-
to edo zerga au tokiaren eŕfentearen erdikoa izango da bakaŕik.

Beste batek lendik eukiriko dendea iñok aŕtuko ba'leu, yaube bafi onek be baŕdin ordaindu beaf izango dau zerga ori.

6.^a Lauki onetan aifatu diran zerga moduak, eŕfietan gabeko amaŕak auŕetik ta Bilbo'n amaikak auŕetik itxiko diran trabena edo edari dendaen yaubei kobrauko yake.

Eŕfietan amaŕetatik amaiketara biŕaŕtean eta Bilbo'n amaikak amabiak biŕaŕtean itxiko diran trabena yaubeak, oŕez ganera, zerga ori ordainduz ganera, oŕen euneko beŕogetamaŕeko eŕekaŕgoa ordaindu beaf izango dabe. Eŕfietan amaikak baño beluago, ta Bilbo'n gabeko amabietatik gora itxiko, diran trabena yaubeentzat eŕekaŕgo ori doblia izango da, zergearen beste ainbestekoa.

7.^a Eŕekaŕgo onek ordaindu ezkerro gero, dendea orduŕtik gora zabalik eukitea edo zabalik eukiteŕen ezta laketuko. Batzuk uste izan leye ba, eŕekaŕgoa pagau ezketiño dendea orduŕetatik gora zabalik euki leitekela ta. Iñoiz iñungo Udal edo Ayuntamenturen bat berak lendik aginduta daukozan tra-
benak zabalik eukiteko ordu oŕek luzatzeko asmoz Aldundi oŕetara ori egi-
teko eske etoŕiko ba'litz, Aldundiak beti atzeratuko dau olako eskaria ta ezetza bidalduko dautso.

8.^a Alkoldun edariak saltzen diran dendak osasunari yagokozan ardura gustiak ondo beteta euki beaf izango diŕue; eztira izango zikiñak, ilunak, txikiegiak, estuegiak eta onetara; garbiak, argiak, aundiak ta zabalak baño, ta au, ondo beteta daukela, eŕian olako gauzetarako izendauta dagon gizon aifuaŕk izenpetu edo firmauriko agiri edo dokumentu baten bidez egiztu beaf izango dabe denda yaubeak, euren dendea zabaldu auŕetik, ostantzean, dendeak, eskatzen diran garbiŕtasun oŕek beaf diran moduan euki ezik, etxake dendea zabalzeko baimen edo permisoriŕk emongo.

Era onetantxe, urtean-urtean, Aprilaren lenengo eguna baño lenago, ageŕtu beaf izango dabe denda yaubeak, osasunari yagokozan ardureak ondo beteta daukoezala. Zertzelada oneik ondo bete barik itxiko daben denda yaubeak eŕudun egingo dira, ta euren eŕu ori geroago aifatuŕko diŕu-
gun zigor-arauen aŕteko irugafen zenbakiak diñon zigor moduaz zigorŕtauko dira ta antxe izentatzen dan multea ezafiko yake.

Zigor-arauak

1.^a Araudiaren 114'gaŕen atalak diñoenari buruz, emen aifatuŕko diŕu-
gun arauak ausiko diŕuenak patentearen saneuŕiz ganera beste ainbeste multa ordainduŕteko eŕudun egingo dira, ta beraz patentea biŕitan ordaindu beaf izango dabe:

a) Euri dagokien patente modua artu barik dendea zabalduko daben trabena yaubeak.

g) Euren denda klaseai yagokon patentea baño preziyo txikiagokoa aŕtu, ta euren dendea oŕetara zabalduko dabenak.

k) Irugaŕen atalaren bigaŕen zatian aifatuŕen diran yatetxe, hotel ta onetariko etxeen yaubeak patentea beaf eta aŕtuko eztabenean.

2.^a Auŕeko atalan aifatuŕo diran beaŕkunak biŕitan ausiko diŕueneri,

patentea kenduko yake, ta ez euren sendikorik ez euren mofoirik ezin izango dabe dendarik zabaldu edaririk saltzeko, urte betean.

3.^a Osasunari yagokozan ardureak ondo bete barik eukiko dituen trabena yaubeak 50'tik 250'era bitarteko multea ordaindu bea' izango dabe. Multa bardiña ordainduko dabe efiko Udalaren ordenantzak edo zuzentza arautegiak aginduta daukozan orduetatik gora euren edari dendak zabalik eukiko dituen trabena yaubeak. Arau o'rek biritan ausiko ba'litue ba'iz, patentea kenduko litzakioe.

Multa oneik efiko Alkateak ezafiko ditu berak baka'fik. Alkateak ezafiriko multea ondo eztagola deritxonak, multea ordainduta gero, ufengo zof'tzi egunaren ba'fuan Komisiño Probinztialera yoko dau zuzentza bila. Batzofde onek erabagiko dauna edo beronen erabakiaren kontra ezin izango da iñora yo.

4.^a Poralak saftuko dabe denuntziya efiko agintarien a'fuan, iñoiz arau onen austerik edo efiko ordenantzetan agintzen diran bea'kunaren austerik yakingo ba'lebe. Iñoiz trabena yauberen batek biritan ausiko ba'litu a'faturiko arauak, orduan denuntziya ori Komisiño Probinzialera saftuko dabe, Batzofde onek gorago agindu dan legez, trabena yaube oferi patentea kendu dagion.

Denuntziya saftuko daunak, naiz porala, naiz ostantzekoa dala, multeren iru zatitik bi yasoko ditu, ta irugafen zatia espedientea erabili dan idazkolarako izango da.

Aldundi Goiti o'rek erabagiko dau berak ondoen dirotxon legez.

Bilbo'n 1.922'gko. Lotazi'la'ko 29'gna.—*Urien'tar Keperin.*—*Fatras'tar Bingen.*—*Zabala'tar Perderika.*—*Lasota'tar Eramun.*

Aureko Txostenaren Bayezko Erabaki-Agerkuna

ERABAKI-AGERKUNA.—Aldundi-Goitiak gaurko batzar orokafean bayeztu dau aureko Ogasun Batzordearentzostena, ta au onetara izan dala zin agertzeko, izenpetzen dot Erabaki-Agerkun au nik, Aldundia'ren Idazkariak.

Bilbo'n 1.923'gko. Urtañila'ko 2'gna.

Estetxa.

Trabena bakotzari dagokiozan biztanleak zenbat diran argi ipinteko
oara:

Txandea (1)	ERIAK	Biztanleak	Trabena	Trabena bakotzari yagokozanak
1	Areatza (Villaro)...	792	16	49
2	Gorozika	505	9	56
3	Izurza	307	5	61
4	Sukafieta (Pedernales) ..	430	7	62
5	Lekeitio	4.110	66	62
6	Ermu	1.001	16	62
7	Lanestosa	675	10	67
8	Zolo	282	4	70
9	Arzentalet	1.462	20	73
10	Zaldua	822	11	75
11	Elantxobe	1.177	15	78
12	Abadiano	2.041	26	78
13	Mundaka	1.835	23	80
14	Otxandiano	1.118	14	80
15	Galdames	3.709	46	81
16	Markina	1.616	20	81
17	Balmaseda	3.486	42	83
18	Luyu	1.243	15	83
19	Ea	1.320	15	88
20	Ondafoa	4.582	52	88
21	Sopuerta	4.093	46	89
22	Ugao (Miravalles)	1.349	15	90
23	Lemoniz	818	9	91
24	Arantzazu	273	3	91
25	Arteaga	1.221	13	94
26	Ibafangelu	1.409	15	94
27	Murueta	378	4	94
28	Amorebieta	4.056	42	97
29	Izpaster	1.159	12	97
30	Bakio	592	6	99
31	Poru	692	7	99
32	Durango	5.758	58	99
33	Axpe	506	5	101
	<i>Beste aldera erroteko ..</i>	54.822	667	

(1) Txanda au trabenarik geyen diñuen efietatik gitxien diñuenera aftuta dago: olan ba, Areatza, diñuen biztanle edo lagunetarako trabenarik geyen diñuena da ta Fika, gitxien diñuena.

Txandea	ERIAK	Biztanleak	Trabesak	Trabena bakozari yagokozanak
	<i>Beste aldetik ekarrialak..</i>	54.822	667	
34	Etxebarri	1.122	11	102
35	Mañari	614	6	102
36	Gaztelu-Eleizabeitia.....	923	9	103
37	Ibañuri	839	8	105
38	Musques	4.102	39	105
39	Busturi	1.751	16	109
40	Deustu	7.911	72	110
41	Getxo	11.399	99	111
42	Murelaga	1.116	10	112
43	Gernika	4.712	42	112
44	Kortezubi	786	7	112
45	Apatamonasterio.....	337	3	112
46	Añazola	450	4	112
47	Zaratamo	789	7	113
48	Santurze (Zaña)	4.646	41	113
49	Mungia	5.453	48	114
50	Añankudiaga	682	6	114
51	Muxika	1.370	12	114
52	Morga	805	7	115
53	Lemona	1.381	12	115
54	Basauri.....	5.199	45	116
55	Meñaka.....	694	6	116
56	Abanto y Ciérvana	9.543	82	116
57	Zearotza.....	941	8	118
58	Santurze (Ortuella).....	5.553	47	118
59	Erandio	10.045	85	118
60	Galdakano.....	4.886	41	119
61	Beñatua	1.230	10	123
62	San Salvador del Valle ..	6.964	55	127
63	Orduña.....	3.169	25	127
64	Beñiz.....	2.048	16	128
65	Zeanuri	2.447	19	129
66	Leyona.....	3.249	25	130
67	Laukiniz.....	520	4	130
68	Bedia	915	7	131
69	Arbaizegui-Gefikaitz ..	1.053	8	132
70	Gueñes	3.440	26	132
71	Garai.....	416	3	135
72	Elofio	3.014	22	137
73	Maruri	686	5	137
74	Gaminiz (Plencia).....	1.800	13	138
75	Yufe	1.643	12	140
76	Gatika.....	984	7	141
77	Urduliz	847	6	141
	<i>Beste aldera erroteko..</i>	177.296	1.703	

Txandea	ERIAK	Biztanleak	Trabernak	Trabena bakotxari yagokozanak
	<i>Beste aldetik ekañiak..</i>	177.296	1.703	
78	Orozko.....	2.840	20	142
79	Bermeo.....	10.517	74	142
80	Afigoñaga.....	3.641	25	146
81	Yufeta.....	1.750	12	146
82	Etxano.....	1.028	7	147
83	Sondika.....	1.031	7	147
84	Ayangiz.....	1.034	7	148
85	Carranza.....	4.506	30	150
86	Gordexola.....	1.817	12	151
87	Nabarniz.....	606	4	151
88	Malabia.....	1.079	7	154
89	Dima.....	2.647	17	156
90	Lezama.....	1.270	8	159
91	Añeta.....	1.142	7	163
92	Gamiz.....	657	4	164
93	Gorliz.....	1.325	8	166
94	Fruniz.....	499	3	166
95	Barakaldo.....	26.906	161	167
96	Ubidea.....	349	2	174
97	Arakaldo.....	178	1	178
98	Zala.....	3.453	19	182
99	Bañika.....	728	4	182
100	Jemein.....	1.296	7	185
101	Sestao.....	15.579	83	188
102	Begoña.....	11.097	59	188
103	Lañabazua.....	1.519	8	190
104	Portugalete.....	7.629	40	191
105	Añazua.....	766	4	191
106	Zeberio.....	1.982	10	198
107	Ereño.....	608	3	203
108	Trucios.....	1.038	5	208
109	Mendixa.....	418	2	209
110	Derio.....	424	2	212
111	Zamudio.....	1.444	6	241
112	Efigoitia.....	1.237	5	247
113	Mendata.....	1.006	4	251
114	Etxebarria.....	1.030	4	257
115	Gizaburuaga.....	316	1	316
116	Berango.....	956	3	319
117	Amoroto.....	647	2	323
118	Bilbo.....	112.819	320	353
119	Sopelana.....	1.066	3	355
120	Fika.....	374	1	374
	<i>Gustiz...</i>	409.550	2.714	

LABURPENA

Bizkai'ko biztanleak edo Bizkaya'n bizigaranak 409.550 izanik eta ardao ta beste alkoldun edariak saltzen diran dendak 2.714 diralarik, 151 biztanlantzako trabena bat edo edari denda bat dagola ataraten dogu.

Trabena bakotxari dagokion biztanle aindo edo kantidadea ikusten dan lez, ikerea saftzekoa da, ondiño geyago 100 biztanle edo lagunetik 60 edo 65 emakume ta umeak dirala kontuan eukiñen ba-dugu.

Bizkaya'n 1922 grn urtean saldurkio alkoldun edarien aindoa ta eurekandik urteten daun alkohol utsa.

EDARI KLASEA	Litroak	Litro eunenak	Malea	ALKOL UTSA	
				Litroak	Litro eunenak
14 1/2 malara arteko ardaoa	34.715.143		13	4.512.968	59
16 malara arteko ardaoa	2.295		16	367	20
Boteletan safturiko 16 malara arteko ardaoa	189.703		12	22.764	36
Sagañdao ta txakoliña; bizduna ta ostantzekoa	44.949		8	3.595	92
Ardao berarizkoa	181.258		17	30.813	86
Ardao gozoa	199.705		15	29.955	75
Ardao zuri berarizkoa	14.516		15	2.177	40
Txanpan	16.973		17	2.885	41
Alkohol utsa	540.879	71	100	540.879	71
Edari gogofak	165.657	4	45	74.535	65
Edariak egiteko esenziyak	955		60	573	3
Limufeta gozoa	27.806		15	4.170	90
Kanpoko garagañdaoa	22.116		6	1.326	96
Euskalefiko garagañdaoa	1.665.977		6	99.953	62
<i>Alkohol utsaren aindo zietza</i>				5.326.973	33

Bizkai ko biztanle edo lagunak 409.550 izanik urtean lagun bakoxtari 13,006 litro alkohol uts dagokioz, edo biztanle bakoxtak 13,006 litro alkohol uts edan izango ditu urtean, 1919 grn urtean aindo au 11,523 koa zan.

BILABIDIA

	<u>Ingoskiak</u>
Itxaurtea	2
1921'gfn urtean aufkezturiko egiñen-asmoa	3
Aufeko egiñen-asmoaren bayezko erabaki-agefkuna	13
Ogasun Batzordearen txostena	14
Aufeko txostenaren bayezko erabaki-agefkuna	18
Trabena bakotxari senbat biztanle dagokiozan yakiñeko oafa	19
Bizkaya'u 1.922 gfen urtean salduriko alkoldun edarien aindoa ikusteko laukia	23

